

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Alaia Beitia Bolinaga

*Oñati,
Gipuzkoa
(1985)*

Aurkibidea



Biografia



Uribarri auzoko Otae-Txiki baserrikoa. Aita bertakoa du eta ama Araozgo Beitia baserrikoa. Umetatik entzun du hika etxean. Guraso biek hika egiten dute senideekin, baina berari zuka egin diote beti. [Marixol Bolinaga](#) lehengusuarekin hika egiten saiatu zen bolada batean. Oñatiko emakumeen hika jaso eta biziberritzeko sortu den [Ingo Xonau!](#) proiektuko kide da Alaia, eta hika praktikatzeko eta erabiltzeko hasteko gertu dago.

Zintak

ONA-281

- **Proiektua:** Oñatiko noka: Ingo Xonau!
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2019-04-15
- **Iraupena:** 58 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Gurasoek senide eta lagunekin hika

- **Erref:** ONA-281/002
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:00:43. **Bukatu:** 00:01:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Gurasoek ez diote hika egiten, baina beren anai-arrebekin eta lagunekin hika egiten dute. Ama araoztarra dauka eta hika egiten segitu dute, baina Uribarrin gizonezkoen artean bakarrik mantendu da.</p>

2. Aitak Alaiaren mutil-lagunari hika, baina berari ez

- **Erref:** ONA-281/004
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:02:15. **Bukatu:** 00:04:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Araozko Beitikoa baserrikoa du ama, eta hark hika egiten du lagunekin. Aitak ere hika egiten die mutil askori, baina neskei ez; arrebei soilik eta lagunei. Berari ez diote egiten. Ez du galdetu zergatik. Bere mutil-lagunari hika egiten dio.</p>

3. Lehengusuen artean, ikasteko nahia

- **Erref:** ONA-281/005
- **Iraupena:** 0:03:22. **Hasi:** 00:04:53. **Bukatu:** 00:08:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Araozko lehengusu batek, Marixolek, egiten zion hika, baina beti zuzentzen aritzen zitzaion, eta ez zitzaion gustatzen: ez egiteko esan zion. Orain badu berreskuratze gogo. Lehengusuekin egin izan du hika, parranda giroan, baina ez du iraun gero. Umeei ez zieten hika egiten, koskortu arte; orain, berriz, betirako ume. Transmisioaren etena: askok ez dute etxean jaso. Mutilek, berriz, beti egin izan dute.</p>

4. Belarria eginda dauka

- **Erref:** ONA-281/006
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:08:15. **Bukatu:** 00:09:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Belarria eginda dauka, etxean entzun duelako. Zuzenean Marixolek bakarrik egin izan dio. Etxera mutilen batekin badoa, hari hika egiten diote, baina neskei ez.</p>

5. Nokaren galeraren arrazoiak, genero ikuspegiarekin lotuta

- **Erref:** ONA-281/008
- **Iraupena:** 0:03:48. **Hasi:** 00:09:58. **Bukatu:** 00:13:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Ez daki zergatik galdu den noka eta toka ez. Uste du nahi gabe gertatu dela, baina genero ikuspegiak zerikusia izan dezake. Ez dauka anai-arrebarik, baina mutila balitz ia seguru dago egingo liokeela. Gertatu daiteke baserritar kutsua kentzeko hitanoa alde batera uztea. Eta apurka-apurka noka galtzen joan da. 55 urtetik beherako ia inork ez daki.

6. Euskalkidunen konplexuak, batuaren aurrean

- **Erref:** ONA-281/009
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:13:46. **Bukatu:** 00:15:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Tratamenduak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Gurasoek ez dakite euskal gramatikarik, erdaraz ikasi zutelako eta euskara ahoz aho transmititzen zen. Batua etorri zenean, baliteke euskalkiak garrantzia galtzea, eta hitanoak are gehiago. Ez zegoen konturatuta nesken artean galtzen zebilenik. Mutilen artean egiten da, baina gaizki.

7. Hika ondo dakitenen perfila

- **Erref:** ONA-281/010
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:15:49. **Bukatu:** 00:18:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Mutil gazteen artean hika gaizki egiten dela dio, "leikedok" moduko aditzak erabiltzen dituztelako. Hika ondo dakitenak baserritarrak izan ohi dira. Extremadurako gurasoak dituen mutil batek dena hika egiten ei du. Mutilek lanean ere ikasten dute hika.

8. Sozializatzeko modu diferenteak mutilek eta neskek

- **Erref:** ONA-281/012
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:19:19. **Bukatu:** 00:21:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Nesken eta mutilen sozializatzeko moduak desberdinak ziren. Aisialdia oso mugatua zuten emakumeek, eta baliteke horrek hitanoaren transmisio-faltan eragin izana. Tabernan egiten du lana, eta gazteen artean ez du noka entzuten; arantzazuko bi amandretxori bakarrik.

9. Hitanoa ez dago gaizki ikusita gaur egun

- **Erref:** ONA-281/014
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:23:41. **Bukatu:** 00:25:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Oñatieraz ondo egitea eta euskaraz ondo egitea ez dira gauza bera. Oñatiera ere aldatzen doa, gaztelaniaren eta batuaren eraginez. Ingo Xonau! taldearen sorrerak bere inguruan ilusioa piztu duela dio. Gaur egun ez dago hitanoari buruzko iritzi txarrik.</p>

10. Hitanoa jakitea, hizkuntza menperatzea

- **Erref:** ONA-281/015
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:25:51. **Bukatu:** 00:29:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Antzuolako ikerketa aipatzen du elkarrizketatzaileak: mutil gazteek diote hitanoak "euskal label" edo plus bat ematen duela. Hizkuntza menperatzearekin ere lotzen du hitanoa Alaiak. Nortasuna ematen du, eta baserritar izaerarekin ere lotzen da: gaur egun harrotasunerako motibo izan daiteke, ez lehen bezala.</p>

11. Mutilek neskei gaizki hika sarritan

- **Erref:** ONA-281/016
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:29:18. **Bukatu:** 00:32:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Mutilek askotan gaizki egiten dietek neskei hika, mutilei moduan. Baditu, hala ere, ondo egiten duten lagunak ere. 18 urte zituenean egiten zuen hika haiekin, baina gaur egun ez du harreman handirik. Alaiak errezago egiten die hika mutilei, gehiago entzun duelako. Noka egiteko pentsatu egin behar du, eta toka irten egiten zaio. Azkoitin ezagutzen ditu elkarrekin hika egiten duten bikoteak ere.</p>

12. Nahiko luke lagunekin hika egin

- **Erref:** ONA-281/017

- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:32:23. **Bukatu:** 00:35:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Gustatuko litzaioke lagunekin hika egitea, naturaltasunez. Noizen behin taberna giroan elkartzea ideia ona iruditzen zaio noka suspertzeko. Soka sortu dezake horrek. Adin askotakoak elkartzea komeni dela dio eta gizonezkoak be parte hartu beharko luketeela, hitanoa denon kontua delako.</p>

13. Hitanoa galduko balitz, zer?

- **Erref:** ONA-281/018
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:35:18. **Bukatu:** 00:36:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Hitanoa galtzea pena litzatekeela dio. Haurtzaroko oroitzapenekin lotzen du, lehenagoko amandreekin. Desberdina da zuka ala hika hitz egin: formak edukian ere eragina dauka.</p>

14. Eskolan oñatierako aditz-taulak ikasten

- **Erref:** ONA-281/020
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:37:42. **Bukatu:** 00:41:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Eskolan ikasi zituen oñatierako aditz-taulak, erdarakadak kentzeko asmoarekin... hitanoa ere eman zuten, baina irakaslea ez zen bertakoa eta berak etxean entzuten zuena desberdina zen. Alaiak kalean ez zituen etxean erabiltzen zituen hitz berak erabiltzen, modu inkontzientean.</p>

15. Hitanoaren transmisioa Uribarri auzoan

- **Erref:** ONA-281/021
- **Iraupena:** 0:04:32. **Hasi:** 00:41:00. **Bukatu:** 00:45:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Uribarri auzoan hitanoaren transmisioa adinekoen artean mantendu egin dela uste du, baita emakumeen artean ere. Industrializazioak eta inmigrazioak eragina dutela uste du: Zubillagan zailagoa dela mantentzea Uribarrin edo Araotzen baino. Klean ez dira erabiltzen baserri munduan erabiltzen diren hitz batzuk.

16. Ama-alaben transmisioan etena

- **Erref:** ONA-281/023
- **Iraupena:** 0:05:40. **Hasi:** 00:47:45. **Bukatu:** 00:53:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Senideekin eta lagunekin bai, baina ama-alaben artean ez da transmisioa mantendu. Alaiak uste du ez zirela kontziente galdu egin zitekeela. Askok ez dakite zergatik ez dieten alabei egin. Euskara galtzeko arriskua ere ez dute bizi izan adineko batzuek, arnasmuneetan. Berari ere gertatu zaio erdaraz gaizki moldatzea, eta erdaraz ikasteko lehengusu batek erdaraz egitea. Baina gaztelania ez ikastea ezinezkoa da gaur egungo gizartean.

17. Ingo Xonau! proiektuari buruz

- **Erref:** ONA-281/025
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:53:47. **Bukatu:** 00:55:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Ingo Xonau! proiektua posible egin duena: Oñati arnasmune bat da eta hitanoa bizirik dago. Bestela, lehentasunak beste batzuk izango lirateke. Ingo Xonau-ren inguruan elkartutako emakumeak hika egiten hasiz gero, noka zabaltzen joan daitekeela uste du.

18. "Ingo xonau!"

- **Erref:** ONA-281/027
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:57:05. **Bukatu:** 00:57:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Hemendik aurrera saiatuko da inguruko umeei hika egiten, gurasoek berarekin egin ez dutena. "Ingo xonau!" esaten du.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com